

# Zentzumenak, imajinarioak, teknikak eta tresnak ilusionismo sozialean

Javier Encina eta M<sup>a</sup> Ángeles Ávila

Ikuskizunaren gizartearentzat bi zentzumen baino ez daude: **ikusmena** eta **entzumena**. Biologiarentzat, beste hiru daude: **dastamena**, **ukimena** eta **usaimena**. Horretan guztian perbertsio bat dago, biologiak banakotu egiten ditu zentzumenak, posible denaren segurtasunari eutsiz. Baina zentzumenak ezin dira banakotu, horregatik beste zortzi agertzen dira: **afektibotasunaren** zentzumena, prozesuko sentimenduak eta emozioak antzemateko behar duguna; **sentikortasuna**, prozesua eta prozesuko talde bakoitza zein momentutan dagoen antzemateko; **egokieraren** zentzumena, gauzak noiz eta nola egin antzematen laguntzen dituguna; **sena edo zentzu komuna**, posible denaren segurtasuna antzemateko; **sormena**, imajinarioak antzemateko darabilguna; **umorearen** zentzumena, simulakro baten bidez ezinezkoaren itxaropena antzemango genukeena; **hurbiltasunaren** zentzumena, eguneroko espazio eta denboren bizipenak antzemateko; eta **urruntasun eta identifikazioaren** zentzumena, prozesuaren atxikipen kritikoa antzemateko.

**Zentzumenen hierarkia** deitu diogun zirriborrotxo duzu ondorengo hau; marxismoan oinarrituz, Donald M. LOWEk (1986) pertzepzioaren historia metodologia berri gisa proposatu du; guk, lerro nagusia argitzeaz gain, aipatu ditugun zortzi zentzumenak gehitu ditugu, historian zehar izan duten bilakaera, indartsuago edo arinago erabili baitira hamahiru zentzumenak:

- Goi Paleolitoa, Neolitoa eta Hirien Sorkuntza: bost zentzumen biologikoak, hurbiltasuna eta sormena.
- Erdi Aroa: entzumena eta ukimena ikusmenaren gainetik, hurbiltasuna eta egokiera.
- Pizkundea: entzumen eta ukimenetik ikusmenaren eta sormenaren nagusitasunera pasatzen da.
- Gizarte Burgesa: ikusmenaren hedapena, dastamena, egokiera eta urruntasuna-identifikazioa.
- XX eta XXI. mendeak: ikusmena eta entzumena (ikuskitzurenaren gizartea), sormena eta urruntasuna-identifikazioa.

### **Gure proposamena: hamahiru zentzumenak**

Zentzumenetik eta zentzumenekin lan egiteak esan nahi du tekniken ordena eta egokitasuna prozesuan zehar aldatzeko trebetasuna izatea, teknikak eta tresnak egokitu eta konektatzea, eta tresna-tekniken aukerak biderkatzea, imajinarioetarantz eta konplexutasunerantz zabaltzeko.

Konplexutasuna bizitzeko eta berarekin batera imajinarioak, ziurgabetasunari aurre egiten ikasi behar da, Edgar MORINen hitzetan (2001:101-102) lau printzipiotan oinarritzen dena:

- “Buru-burmuin ziurgabetasunaren printzipioa, jakintza ororen itzulpen/berreraikitze prozesutik eratorria.
- Ziurgabetasun logikoaren printzipioa. Pascalek argi eta garbi azaltzen du: kontraesankorra ez da faltsutasunaren seinale, eta ezta kontraesankortasun eza egiaren seinale ere.
- Ziurgabetasun arrazionalaren printzipioa, arrazionaltasuna, alerta autokritikoko egoerari eusten ez badio, arrazionalizazioan erortzen da.
- Ziurgabetasun psikologikoaren printzipioa. Ez dago modurik gure buruaren makinarian gertatzen denaren guztiz kontzien-

te izateko, beti izaten du zerbait funtsean inkontzientea. Zaila da, hortaz, autoazterketa kritikoa egitea eta horrek esan nahi du gure zintzotasunak ez duela ziurtasuna bermatzen; autoezagutza beti da mugatua (...). Era berean, inportantea da errealista ez izatea zentzu arruntean (berehalakotasunera egokitzea), ezta irrealista ere zentzu berean (errealitatearen derrigortasunetik aldentzea); komenigarria dena da errealista izatea zentzu konplexuan, hau da: errealaren ziurgabetasuna ulertzea, jakitea badagoela posible denaren zati bat errealean ikustezina dena.

Horrek erakusten digu errealitatea interpretatzen jakin behar dela, errealismoa non dagoen jakin aurretik. Beste behin, errealitatearen gaineko ziurgabetasunetara iristen gara, errealismoen kontzepzioak ziurgabetasunez inpregnatzen dituztenak, eta erakusten dute hainbatetan itxuraz irrealismoak ziren kontuak berez errealistak zirela”.

Kiribil hauetan mugitzen gara imajinarioak lantzen ditugunean –ezinezkoak–.

### **Imajinarioak**

Autoestimua, egunerokoaren transzendentzia (jakintzak, egiteak, oroimena berriz pentsatzea eta gizarte-kultiboak ehuntzea) eta bestea balioestea (egoeraren araberako lidergoak aitzatestea), kontu hauek dira egiteko formak konplexutzea errazten dutenak (ilusionismoaren printzipioekin geure buruari egin dizkiogun galderei sakontasuna eta transzendentzia emateko), ezarritako errealitatearen mugak apurtzea ahalbidetzen digutenak. Jesús IBÁÑEZen hitzetan (1997:395), “zerbait beharrezkoa eta ezinezkoa denean (oraingo joko-arauen arabera), joko-arauak aldatu behar dira, eta horrela ezinezkoa posible izan daiteke. Utopiarik gabe, erreala positiboan ixten da”. Hori dela eta, imajinario-

ekin/etatik lan egiteko, jarrerak landu behar dira (beharrak asetzeko animoa edo gogoa)<sup>1</sup>.

Sormenaren, egokieraren eta sentsibilitatearen zentzumenak bat datozenean, ilusionismo sozialaren keinu bat egin daiteke. Interesgarria da aitortzea ilusionismo sozialeko ekintza bat, berez, garrantzirik gabeko gertaera bat izan daitekeela, baina baldintza horiengatik apur daiteke posible denaren eta ezinezkoaren arteko harresia, susmatu ezin genuen egoera batean koka gaitzake eta konturatuko gara zein alaitasun handia sentitzen dugun egin nahi genuena eginez... imajinarioak.

Ilusionismo sozialeko prozesu hauek, eguneroko espazio eta denboretan oinarrituta daudenez, teknika eta tresna egokituak erabiltzera behartzen gaituzte, alegia, jendea egituratuko (dimentsio estrukturala) edo harrapatuko (dimentsio distributiboa) ez duten teknikak eta tresnak; baizik eta harreman-moduetatik sortzen den aberastasuna eta sormena indartzen duten teknikak eta tresnak (dimentsio dialektikoa). Dimentsio honetan mugitzeko, zentzumenak zorrotzu behar ditugu, pentsatzea, sentitzea eta egitea ez banantzeko, gure jakintzak egokitu eta akonpasatzeko, besteengandik ikasiz; eta horrela, bitartekaritza sozial desiratuak dinamizatu, sortu eta transzendiarazi, posible denaren segurtasunetik ezinezkoaren itxaropenera pasatzeko<sup>2</sup>.

Honaino iritsita, honako hauxe garatzea falta dugu: **teknikak eta tresnak**.

Dimentsioek, ikuspegiak edo epistemologiek ZERTARAKO galderari erantzuten badiote, teknikek ZER galderari eta tresnek NOLA galderari erantzuten diote.

---

1 Ikus. Manfred MAX-NEEF (1994).

2 Ikus. *La esperanza de lo imposible* bideoa: <https://vimeo.com/74869959>

Gaitasuna izan behar dugu teknikak eta tresnak proiektuetako egoeren arabera aldatzeko, ez soilik idatzizko proiektuetan, proiektu horietan topatuko garen jendearekin batera ere bai. Bestela, jendearen gainetik pasatzea litzateke, teknika eta tresna itxiak eta amaituak erabiliz, topatzen goazen jendea kontuan hartu gabe. Beharrezkoa da jendea ez harrapatzea gure teknika eta tresnetan, horretarako asmatu egin behar da, birsortu, jende-ari egokitu, eraldatuz ezagutu ahal izateko.

## **Teknikak**

Ilusionismo sozialeko prozesua garatzeko egiteko moduak erakitzen joateko erak baino ez dira, ilusionismoaren printzipio-etako galderekin sintonian egongo diren bideak nola eraiki errazten digutenak. Ikerketa sozialean aritzen diren pertsonen artean iritzi zabalduena da tresnak (profesionalek «teknika» deritzotenak) dimentsio guztietarako trukagarriak eta probetxugarriak direla, zenbat eta tresna gehiago menderatu, askoz hobeto jakingo duzu ikerketaren problemak erantzuten. Baina hori errealitatetik oso urrun dago, kasurik onenean tresna desagokiak erabiltzea denbora-galtze hutsa da, baina arruntena da murriztzailea izatea, anitza dena modu arbitrarioan bateratzea, eta ondorioz, aniztasuna ezeztatzea. Banakoa eta berezia ezabatzeko modu bat da, lege orokorrak eta identitate sinple eta itxiak identifikatuz; kaosaren zabortegean ordenaren logika eraikitze-ko. Teknikak ezin dira trukagarriak izan, ikertutakoen zereginak ere trukagarriak ez direlako, ezta zertarakoak edo proiektu soziala ere.

Ilusionismo sozialaren egiteko moduan, orain arte zazpi teknika landu ditugu. Teknikek «zer egingo dugu?» galderari erantzuten diote; gu erantzun posible hauek joan gara biltzen: topatu, probokatu, bitartekaritza desiratuak dinamizatu eta sortu, pentsa-

menduak, sentimenduak eta egiteak itzuli-ebalatu eta transferitu, lan kolektiboa balioetsi, egiturak malgutu, eta agurtu.

**Topaketaren teknika:** Beti erabili dugun teknika bat da baina orain gutxira arte ez gara gai izan hitzetan esateko.

Topatzea bilatzearen aurkakoa da, bilatzen duzunean badakizu zer nahi duzun, hortaz, jendearen artean harrapakina hautatu duen ehiztaria bihurtzen zara; errealitatea aurrez marrazten duen harrapagailu bat dago. Topatzeko, *apriorien* lasta askatu behar duzu.

- Alde batetik, dagoeneko BADIREN sareak daude (elkartek, langile publikoak, politikariak...). Espainiar estatuaren datuen arabera, % 7 inguru dira, eta beren ezaugarri nagusia da deialdi bidez egiten dutela lan. Proposamenak prestatuta izaten dituzte eta bezero-multzo bat, eta horri eutsi nahi izaten diote. Jesús IBÁÑEZ-en arabera (1985:95), “sareak alderantzizkotze mugatua du”; horregatik asmatu behar izan genuen egiturak malgutzeko teknika. Sareekin egiten den lehen topaketa horretan aurreratu ahal izatea da ideia, gizarte-kultiboari ahalik eta denbora gehien eskaintzeko, bitartekari-tza desiratuak dinamizatu eta sortzeko teknikaren bidez.
- Beste aldetik, gizarte-kultiboak DAUDE, informalki elkartzeko moduetatik sortzen direnak. Eguneroko espazio eta denboretan elkartzen dira (itxi zein irekietan), ez dute deialdirik, ez gai-ordenik. Hauei eskaini behar diegu denbora gehien, gizartearen gehiengo nagusia osatzen dutelako.

**Probokazioaren teknika:** Probokatzea norbait irten dadin deitzea baino ez da. Bi probokazio-mota leudeke:

- Hasierakoa. Ilusionismo sozialeko prozesu bat abiatzekoa.

*El Palomo*<sup>3</sup> prozesuan, erabaki genuen kanpaina erako komunikazio-tresna bat diseinatzea, ez bizilagunei gure asmoez informatzeko, hausnarketa ireki bat sustatzeko baizik. Tresna hau sortzean, komunikazio-gerrilaren ideia batzuk birformulatu genituen<sup>4</sup>. Horrela, urruntasun-identifikazioaren zentzumena erabili genuen, herrian bizi den jendearekin konexio-puntu bat bilatzeko. Zentzu honek, probokazioaren teknikara aplikaturik, aukera eskaintzen digu bi elementu itxuraz kontraesankorrak baina ilusionismo sozialeko prozesu guztietan aldi berean gertatu behar direnak probokatzeko: prozesuarekiko identifikazioa, eta horrekin batera, parte hartzeko motibazioa, eta prozesuarekiko urruntasuna, horrekin espiritu kritikoa sustatzeko; partaidetza kritikoa, alegia.

- Desblokeatzailea. Abian dagoen prozesu batean egoera blokeatzen denean edo hasierako esklerotizazioan.

*El Reparto* prozesuan<sup>5</sup>, aurrekontu partehartzaileen lehen lanak hautatzean, konturatu ginen zenbait auzo-elkartetako ordezkariak batzarrak egin zituztela, beste batzuek jendeare-

---

3 Palomares del Río (Sevilla), 2005-2007. Esperientzia honen inguruan gehiago jakiteko, irakurri liburu honetan bertan «*Ilusionismo soziala eta jabe-gabetzea Sevillako probintzian*» atala edota Javier ENCINA, Marta DOMÍNGUEZ, M<sup>a</sup> Ángeles ÁVILA, Rosa ALCÓN eta Mariana SAIFE (2007). Kubako Casa de las Américas-en sari bat jaso genuen, ideia originalagatik (2006ko maiatzak 2).

4 Praktika multzo bat komunikazioaren norabide bakarreko eredu hierarkikoa asaldatzea bilatzen duena, eredia iraultzeko. Ikus. Colectivo A.F.R.I.K.A. (2002).

5 *El Reparto*. Aurrekontu partehartzaileak eta eguneroko bizitzaren autogestioa Las Cabezas de San Juanen (Sevilla). European hasitako lehen aurrekontu partehartzaileak izan ziren (1999-2003). Nazio Batuen Erakundearen saria jaso genuen munduko Praktika Sozial Ona izateagatik. Esperientzia honen inguruan gehiago jakiteko, irakurri liburu honetan bertan «*Ilusionismo soziala eta jabe-gabetzea Sevillako probintzian*» atala edota Manuela FERNÁNDEZ, Montse ROSA eta Javier ENCINA (koord.) (2004).

kin hitz egin zutela, beste batzuek eurei egokien iruditzen zitzaizkien proposamenak zekartzatela... Orduan, probokazioaren teknika aplikatzea erabaki genuen: lan horiek onartzea eta publizitatea ematea, ahal zen modu guztietan, argituz lan horiek auzo-elkarteetako ordezkariak erabaki zituztela eta Udalak gauzatuko zituela; ... eta hortxe eseri ginen lasai, zain. Oso denbora laburrean, batzarrak egin ziren auzo eta herrixka guztietan (hamazazpi), hasieran kexatzeko: «nolatan egin da hau, inorekin hitz egin gabe?» eta gero, prozesuan sartu eta elkarrekin erabakitzeko.

**Bitartekaritza desiratuak dinamizatu eta sortzeko teknika:** Teknika honekin lan egitean, honakoak indartzen dituzten harreman-logikak sortzen dira:

- Dinamikotasuna: espazio horretako jende guztiaren arteko komunikazio etengabea eta jariakorra, bertan sortu eta bizi diren gizarte eta kulturekiko harremanetan.
- Mugimendua: kultur kontzepzioak aldatzeko gaitasuna, materialak zein sinbolikoak, garapen eta ukipen prozesu jarraituaren emaitza logiko gisa.
- Dibertsitatea: bestearen eta besteen onarpena, homogeneizazioaren aurka.

Zentzumenak zorrotz zabaltzen dira dinamismoa, mugimendua eta dibertsitatea; itxi gabe, irekitzeko irekiz, bitartekaritzek hartzen dute garrantzia: erlazionatzeko eta egiteko moduak dira bitartekaritzak, eta ezarriak, baimendutakoak, erosiak edo kolektiboki eraikiak izan daitezke. Kolektiboki eraikitako bitartekaritzek lagun diezagukete ekintzak elkarrekin egiteko une egoiak atzematen (askotariko taldeak elkartzea ekintza zehatzak elkarrekin egiteko) eta beharrezkoak diren eraikitze eta eraiste-

moduak irudikatzen, kultura herrikoietan ohikoak diren harreman-moduak eragiteko.

Espazio horietan, bertako biztanleek euren beharrak definitzeko eta asebetetzeko moduak hautatzeko aukera zabaltzen dute, Estatuaren aurrean hiritar gisa (eta ez erabiltzaile gisa) eta Merkatuaren aurrean subjektu kolektibo eraikitzaile gisa (eta ez kontsumitzaile gisa) erlazionatuz, «giza-eskalan». “Espazio horiek dira (taldekakoak, komunitarioak, bertakoak) hain zuzen, giza-eskalaren dimentsio argiena dutenak, alderdi sozialek norbanakoaren alderdiak ezeztatu ordez, norbanakotasunak alderdi sozialak indartzen dituzten espazioak baitira” Manfred MAX-NEEF (1994:88).

Azpimarratu nahi dugu gizakiaren inguruko hausnarketa oso lotuta dagoela gizartearen, komunitatearen, hiriaren, auzoaren, familiaren... ulermenarekin; bizi gareneko gune bakoitzean dugun partehartzearekin. Eremu hauetako bakoitzean dugun kudeaketak/ekintza sinergikoak norabide anitzeko komunikazio eredu baten laguntza izan behar du, alegia, askotariko taldeen jakintzak (bir)sortu eta esplizitatuko dituzten sozializazio-prozesuak mugiarazteko komunikazio eredu bat. Halako komunikazio ereduak, Javier MALAGÓNen (2003:123-124) hausnarketei segiz “informazio-trukeak, elkarrizketa eta feedbacka balioetsi behar dituzte, solaskideek enpatiza dezaten, euren autonomia sustatu eta elkarlan solidarioa finkatzeko (...). Eredu honetatik ekiteko, beharrezkoa da entzute aktiborako gaitasuna garatzea (enpatizatu eta bestea ulertu, bere ibilbidea eta egoera kontuan hartuta), diskurtsoa solaskidearen ezaugarrietara egokitzea (komunikazio-erregistro desberdinekin lan egitea) eta igorle-hartzaile rolak txandaka trukatzeko gaitasuna izatea (*emirec*). Eredu honek pertsona eta giza-taldeen arteko harremanak eral-

datzea bilatzen du, baina ez horrenbeste pertsonak eraldatzea edo taldeak eurak eraldatzea”.

**Pentsamenduak, sentimenduak eta egiteak itzuli-ebalatu eta transferitzeko teknika:** Teknika hau errazago gauzatzeko bereziki zorrotzu behar diren zentzumenak sormena, afektibotasuna eta hurbiltasuna dira.

- Lehenik eta behin, teknika honek ekintzaren ezusteko ondorio negatiboak geldiarazten ditu. Edgar MORINEk adierazi duen bezala (2001:107-108), “ekintza orok bere egilearen borondateari ihes egiten dio esku hartzen duen ingurunearen *elkar-atzera-ekintzen*<sup>6</sup> jokoan sartzen denean (...). Ekintzak porrot egiteko arriskua izateaz gain, hasierako zentzuaren desbideraketa edo perbertsioa suposa dezake, hasi dutenen kontra jartzeraino. Ekintzak ezusteko hiru ondorio negatibo izan ditzake (...): Ondorio perbertsoa (espero ez zen ondorio kaltegarria garrantzitsuagoa da espero zen ondorio onuragarria baino). Berrikuntza hutsala izatea (zenbat eta gehiago aldatu, hainbat eta berdina da). Lortutakoaren mehatxua (lortutakoa fosilizatzen da eta edozein eraldaketarekin jarraitzea oztopatzen du).
- Bigarrenik, teknika honekin prozesuaren inguruko hausnarketa eragin dezakegu, eta horrela erabakitako gauzak berdimentsionatu; hartara, erabakitako gauzak ez dira modu akritikoan onartzen, eta geure burua prestatzen dugu proposamen berriak irudikatze eta etorkizun eta imajinario berrien inguruan hausnartzeko, espazio berean zein esperientzia transferituko den beste leku batzuetan. “Etorkizunerantz begiratzen dugunean, ziurgabetasuna sentitzen dugu: nolakoa izango da gure seme-alaben, gure biloben etorkizuna? Baina

---

6 Itz. oh.: «elkar-atzera-ekintzak» erabili da «*interretro-accione*» itzultzeko.

ziur gaude Lurrak gizakion beharrak asetuko baditu, orduan gizartea eraldatu behar dela. Biharko mundua gaur ezagutzen dugunaren funtsean desberdina izan behar du (...). Etorkizun bideragarri baten alde egin behar dugu lan, ondorioz. Demokrazia, ekitatea eta justizia soziala, bakea eta gure ingurune naturalarekiko harmonia, etortzear den mundu honen gako-hitzak izan behar dute. Ziurtatu behar dugu iraunkortasunaren nozioa izango dela gure bizimoduaren oinarria, gure nazio eta komunitateak zuzentzeko eta globalki eragiteko gakoa” Edgar MORIN (2001:13).

Jakintzak, egiteak eta sentipenak etengabe itzuliz, egin daitekeen ebaluazio posible bakarra eragiten da: partaidetza-prozesuan murgilduta dagoen jendearena, eta gauzak berpentsatuz/berreginez/bersentituz, prozesua bera eraldatzen doa.

Itzulketak jarraitua eta dezentratua izan behar du: zenbat eta jende edota talde gehiagok itzuli eta zenbat eta autonomia handiagoz itzuli, hainbat aberatsagoa izango da prozesua. Zenbat eta zentralizatuagoa, estandarizatuagoa eta programatuagoa izan, orduan eta pobregoa izango da prozesua eta partaidetza txikiagoa izango du.

**Transferentzia:** ilusionismo sozialaren teknika baten atal bat da. Transferentzia banakako zein taldeko bereganatzea izan daiteke; baina ez da interes partikularren arabera (beste lan kolektibo bati «gauzak» gehitzen dizkio, egunerokotasuna transzendiaraziz), eta ez du eredarri izateko asmorik (sentikortasunaren, egokieraren eta sormenaren zentzumenez transferitzen da; lan zehatz bat egiteko edo posible denaren segurtasuna desblokeatzeko); ez da ahalduntzearen jokoan sartzen (amaierako sistematizazioak ahalduntzen du gauzak modu itxian eta eredu modura azaltzen dituelako, eta transferentziak jabe-gabetzen du, beste

leku batean baliagarria izan den zerbait modu irekian azaltzen duelako, eta baliagarria izateko bermoldatu egin behar da, berpentsatuz/bersentituz/berreginez...).

**Lan kolektiboa balioesteko teknika:** imajinarioak eta motibazioak zabaltzen ditu: errealitatea eraikitze kolektibo gisa sentitzeak ulertarazten ditu etorkizuna, neurri handi batean, besteekin izan ditzakezun bizipenen arabera dela; parte hartu nahi izatera eramaten zaitu. Horretarako, zazpi zentzumen zorroztu behar ditugu: umorea, afektibotasuna, sentikortasuna, egokiera, hurbiltasuna, urruntasun-identifikazioa eta sormena; horrek erraztuko digu tresnak zereginera egokitzea: erabilgarritasuna eta kanpo-aitortza.

Bi erabilgarritasun-motaren inguruan aritzen gara:

- Praktikoa, posible denaren segurtasuna eta lasaitasuna ematen diguten gauza txiki horiek lortzeko balio duena.
- Transzendentea, soilik erabil genezakeena imajinarioetan irekiera-gradu bat dagoenean; tresnaren alderdi honek teknika honekin ezinezkoak lantzen laguntzen digu eta bitartekaritza berriak eragiten ditu, harreman-moduetan eraldaketak gerta daitezten.

Bitartekaritza berriak bestea onartzetik datoz, gutasuna zabalduz eta deseraikiz; Soledad BORDEGARAYren hitzetan (2006:57), “persona-multzo mugatu bat, denbora eta espazio konstanteen eraginez loturik dagoena eta elkarren arteko barne-ordezkaritzak artikulaturik (...). Gutasun horren parte izatea prozesu bat da, nork bere denboren arabera ibiltzen duena, jardueretan, bilereetan, eguneroko zereginetan parte hartuz. (...) Ezagutza bilatuz eta lan autogestionatuaren bidez, gutasun berriak sortzen dira”. Besteekin topatuz “gure gutasunaren molde berriak topatzen ditugu. Egunerokotasunaren loturan oinarritzen ez dena, gure



lurraldearen gutasun txikia gainditzen duena eta erroak (...) amets, pentsamendu eta ekintza ore horretan txertatuta dituen, ehun solidoagoa eta malguagoa josteko gai dena, mugaz haraindi, hizkuntzaren edo gorputzen mugetatik harantz”.

**Egiturak malgutzeko teknika:** Prozesuetan egiturekin lan egin nahi denean (administratiboak, erakundeenak, elkarteenak...) geure esperientziak erakutsi digute probokazioaren teknikak eta bitartekaritza sozial desiratuak sortu eta dinamizatzeko teknikak beti blokeo egoeretara garamatzatela. Eta horren arrazoia da egiturak ezin direla eraldatu, gaur egungo gizartean gehienez ere deformatzera irits gaitezke.



*Zer egingo dugu?* galderari erantzutean JENDEAREKIN lan egin ahal izateko egituren aldaketan lan egingo dugula diogunean, egiturak malgutzeko teknika erabiliko dugu. Metodologia partehartzaile batzuen planteamendua da egituren barruko edukiak aldatzea (eta horri deritzote eraldaketa) eta eguneroko espazio eta denborak homologatzea ordutegi/lurralde logikan, ekintza zehatzak egiteko esparruak finkatuz, eta abar; lan egiteko modu horiek bide bateraezinetara eramango gintuzkete, egiturak hiritarrekin dituzten harreman-moduak malgotu ordez.

Egituren distentsioa planteatzen dugu, ordezkapenaren aurrean. Horrek ez du esan nahi ezerezean zintzilik geratzen garela, aitzitik, tenkatuta dagoena lasaitzean zirrikituak agertzen dira, ezustekoak jaiotzeko guneak, eraikin bateko zulotxo batean urputzu txiki bat sortzetik pikondo bat ernamuintzen denean bezala, eraikinak bertan dirau baina pikondoaren usainak eskitako arropa bustitzen du eta irribarra sorrarazten dizu leihora irteten zarenean, eta zure auzokideak desberdin ulertzen zaitu, irribarrez ikusi zaituelako.

Ordezkapena:



Distentsio bidez malgutzea:



1. irudia. Egiturak ordezkatzea vs. egiturak malgutzea

Horregatik uste dugu beharrezkoa dela *zer egingo dugu?* galderaren aurrean *ba egiturak malgutatu* erantzutea, ilusionismo sozialaren bostgarren teknika. Intuizioz lan egin badugu ere, urteak behar izan ditugu erantzun hau eman ahal izateko. Oso erraza baita honelako kontuetan erortzea: inork ez du zalantzan jartzen harremanetan egotearen garrantzia, baina «zeinen gaizki koordinatzen garen...» eta errua beti besteen borondate falta da eta egituren zurruntasuna. Horren ondorioak denok pairatzen ditugu: antolaketa-arazoak, arazo emozionalak, errealitatearekiko deskonexioa, tentsioak, isolamendua, zatikatzea, babesgabetasun teknikoa, gatazkak, partikularismoak, hierarkia absurdoak, eraginkortasun gabezia... Baina egiturak pertsonak malgutzen dituzte, ez protokoloek edo erakundeek.

Gaur egun badago joera bat administrazio publikoan, profesionalizatutako mugimendu sozialetan eta beste talde formal batzuetan, integritasunaren eta egiturak malgutzearen aldeko diskurtsoa defendatzeko, baina praktikara eramatean:

- Egitura berriak sortzen dira, homogeneousak eta aurrekoak bezain zurrinak. Zenbaitetan azpimarratzen dugu oker gabiltzala koordinazioaren produktu deritzogun hori (protokoloak, batzordeak...) malguketak direla esatean, produktu horiek eraikitzeke modua zenbaitetan jendearen errealitateari lotuta badago ere (eraginkorrak izateko eta jendeak eurretzat hartzeko, adibidez ahots desberdinak barneratuz...).
- Denok denetik egin behar dugu, horrek rolen ordezkaritza bertikala eragiten du; horren ordez, elkartrukea eraikitzea proposatzen dugu, alegia, jabe-gabetzerantz egin behar da lan, botereari uztearen alde, eta ondorioz, egoeraren araberrako lidergoak indartu behar dira<sup>7</sup>.

Malgutzea oztopatzen duten zenbait erpin:

- Egitura bertikalak sortzea, batzorde edo inposatutako gidarero gisa eratuak; laguntza-estrategiarik gabe, topaguneak erraztu eta elikatzeko komunikaziorik gabe; horrela, espazio hil bilakatzen dira, bizitzarik gabeak.
- Malgutzeko saiakeretan aurretik izandako esperientzia negatiboak, horrek sinesgarritasuna kentzen dio abiatzen den prozesuari. Espazioak bestelako egiteko moduak erabiliz sor daitezkeelako konfiantza galdu izana.
- Interes instituzional eta pertsonalak testuingurura erantzuten dioten interes kolektiboen gaintetik ezartzea.

---

<sup>7</sup> Ilusionismo sozialarentzat oinarritzkoa da egoeraren araberrako lidergoak indartzea (hainbat lider Denetarako Liderrak bezala ikusteak eragiten duen esklerotizazioaren aurrean). Egoeraren araberrako lidergoak aitortzea eta animatzea da onartzea prozesuko zeregin guztiek dutela garrantzia; ez dago «bigarren mailako» zereginik edo zeregin osagarririk. Prozesu sozialak prozesuan bizitza eta asebetetzea behar duten pertsonak osatzen dituzte. Ilusionismo sozialarekin proposatzen ari garen ideia «goberru-magiatik» bereiztu nahi dugu, gure esku-hartze gaitasunetik kanpo gelditzen dena.

- Berez errealitate administratiboarenak diren ikuspegi zatikatuak eta konpartimentalak, malgutasun faltaren kausa eta ondorio dira, aldi berean (nor bere zereginen zentratuta egoitea).
- Prozesuen, alogikien eta pentsatzeko/sentitzeko/egiteko modu desberdinen autodefentsaren eta (benetako) erresistentziaren beharra, egitura menderatzaileek etengabe erasotzen dietelako.
- Informazio trukearen eta eraikitze kolektiboaren arteko nahasketa.

Distentsioa eragiten duten zenbait zirrikitu:

- Prozesuan parte hartzen duten alde guztien arteko komunikazioa, harmena eta eraikitzea sustatzen duten lan-praktikak erabiltzea, gertatzen denaren arabera moldatuko direnak.
- Topaketarako eta komunikaziorako espazio eta une guztiak baliatzea benetako estekamenduan eta elkarren arteko ezagutzan eta aitortzan aurrera egiteko.
- Besteen lana balioestea.
- Malgutzea oso irekia izan behar da, horrek esan nahi du zenbaitetan ez komunikatzea eta zenbait ekintza eta erabakiren aurrean malgutasunik ez izatea. Etikoki malgutasun eza malgutzailea da autodefentsarekin eta mehatxupeko prozesuen erresistentziekin konektatzen denean.
- Pentsatu, sentitu eta egin elkarlotuta lan egitea, harremanen bitartez pentsatzen, sentitzen eta egiteen transferentziekin jarraitzeko. Horrek malgutasuna eragiten eta indartzen du, baina helburu komunak aurkitzeko ahaleginetan gabiltzanean, adostasunak bilatuz, harrapatuta geratzen gara, topagune horietako sormena apurtzen delako.

Malgutzeko, hiru alderdi indartu behar dira:

- Nahi izatea, hau da, motibazioak, jarrera irekia eta harkorra izateko borondatea.
- Jakitea, hau da, praktika malguak ezagutzea, transferitzea, eraikitzea eta erabiltzea.
- Jabe-gabetzea, topatzeko bideak eta espazioak zaintzea, baita bertan sortzen diren aukerak ere.

Eta batez ere, eta geure pentsatze, sentitze eta egiteetatik, perfektzioaren harrokeria topatzen dugunean, hori apurtu, horizontalki erlazionatzea eragozten duelako eta ondorioz, ilusionismo sozialaren abentura galarazi. Inperfekzioak bizia ematen digu.

**Agurtzeko teknika:** Derrigorrezkotzat jotzen dugun teknika bada ere, ez dugu asmatu Olivareseko 2010eko esperientzian parte hartu arte. Errazena da amaitzea, gertuko dugun jendea agurtu, eta alde egitea. Izan ere, konpromiso etikoak behartzen gaitu ilusionista lana utzi eta alde egitera; eguneroko bizitzaren autogestioa lantzen ari bagara, ez ditugu mendetasun berriak sortu behar, kasu honetan geure lanarekiko mendetasuna. Jabe-gabetzea landu behar dugu, geuk ere bai, eta prozesuan zehar gure boterea beherantz utzi behar dugu, inoiz ere ez «Boterea duten pertsonenganantz»... Horrela ahalbidetuko dugu iragana eta oraina konplexutasunez integratuko duen etorkizuna, horrela zabalduko dugu eguneroko bizitzaren autogestioa.

Konplexutasun horretan, malgua da alde egiteko denbora, baina, ezinbestez, gutxienez 15 hilabete emango ditugu (3 kokatzeko + urteko ziklo bat: ez gara berdin bizi urtaro guztietan), gutxiago irauten duten prozesuak ez dira partehartzaileak izango; eta gehienez ere 4 edo 5 urte, gure dinamizazio-lana luzatzen bada, Mesianismo bilakatzeko arriskua du. Denbora horretan ez badugu transferitu dakigun guztia, eta ez badugu prozesuan

zehir sortutako lana itzuli, orduan ahalduntzen ari gara (jendearen gainetik jartzen ari gara), mendetasun berriak eragiten ari gara, kasu honetan geure lan-taldearekiko.

Alde egin behar da, baina joate hori (edo ilusionista izateari uzte hori) zabaldutako prozesuak indartuz egin behar da, inolaz ere ez du itxitura bat izan behar, komunitateko talde bakoitzarentzako estimulu-sorta baizik.

### **Tresnak**

Teknika bat gauzatzeko behar diren instrumentuak dira. Tresnak etengabe egokitu behar dira, berreginak, asmatuak, jendea ez dadin euren moldearen menpeko izan. Horretarako erabiltzen ditugu zentzumenak. Tresnek *nola egingo dugu?* galderari erantzuten diote, eta infinituak dira; egoera berriek planteatzen dizkiguten erronken aurrean asmatzeko eta egokitzeko dugun sormenaren arabekoak.

Pedro MARTÍNEK planteatzen duen modura (2005:116-117), “desberdindu behar dira artisauaren trebezia eta lana egiteko erabiltzen duen tresna. Artisauak (horrela deituko diogu lanbide tradiziozko bat gauzatzeko trebetasunak dituen pertsonari, bere maisu-maistrengandik jasotako ezagutza duena, erabiliaren erabiliaz eta bere esperientziaren laguntzaz hobetzen eta eraldatzen joan diren teknikak eta tresnak manciatuz), tresna trebezia gidatzen du, hamaika aldiz egin dituen mugimenduez ia inkontziente, bere lanaren azken emaitzan gehiago pentsatuz unean uneko mugimendu zehatzean baino, bere ahaleginaren emaitza eskatu dioten helbururako ahalik eta modu egokienean baliagarria izan dadin. Tresna eskuaren luzapena da, pentsamenduen, jakintzen, gauzen... katearen azken muturra izaten da. Baina zenbaitetan halako garrantzia ematen diogu ezen lan-prozesu osoaren gune bilakatzen baita eta ahaztu egiten zaigu

tresna artisauaren eskuak gidatzen duela, eta hori, era berean, bere buruak gidatzen duela (ahalegin handiz), eta honek, era berean jasotako ezagutzari erantzuten diola, eta hori, era berean, ikaskuntza prozesu batean gertatu dela, norik bere esperientziak moldaturik, noiz edo noiz berarekin batera aritu den jendearen laguntzaz, eta hori, era berean... eta orduan, tresnak ez dira ia ezer, geure asmoen mesedetara dauden tresna hutsak baino ez, eta ez alderantziz. Egia da tresnak erabiliaren erabiliaz direla diren bezalakoak, beren xedeak forma hori eman diotelako, eta ondorioz, modu zehatz batean erabili behar dira eraginkortasunik handiena lortzeko; hori ederki daki artisauak, lehenago ikastun izan zen eta denbora-tarte bat eman behar izango zuen nola erabili ikasten eta zenbat eta hobeto erabili, orduan eta emaitza hobea lortzen zuela ikusiz. Baina erabiltzen ikasi zue-nean, beraietaz ahaztu zen, bere bistatik desagertuko balira bezala”.

Tresnak<sup>8</sup> honelakoak izan daitezke:

- Zeharkakoak, nola egingo dugun erantzuteaz gain, beste aukera batzuk zabal ditzaketenak. Tresna hauekin, prozesu osoan zehar egin daiteke ibilbidea. Orain arte, bost zehar-tresnekin egin dugu lan: aitzaki proiektuak, mapeoak, diskurtsoetatik abiatutako analisiak, asanbladak eta ahozko historiak.
- Teknika zehatz bat garatzeko diseinatutakoak amaigabeak dira; 30 tresna baino gehiago erabili ditugu orain arte (esaterako, telenobela bat, desioak esekitzeko soka, goitik behe-ko landareak, etab.).

---

8 Sakontzeko, hainbat tresna daude hemen, eta artikulua eta bideo batzuetarako estekak: <http://bit.ly/2uTrVXu>

## **Bibliografía**

Soledad BORDEGARAY (2006) *La conspiración de los nosotros*. Toti FLORES (komp.) Cuando otros somos nosotros. MTD editora. Buenos Aires.

COLECTIVO A.F.R.I.K.A. (2002) Manual de la guerrilla de la comunicación. Virus Editorial. Bartzelona.

Javier ENCINA eta Ma Ángeles ÁVILA (2010) *El ilusionismo social: Más allá de la última frontera metodológica*. Javier ENCINA, Ma Ángeles ÁVILA eta Begoña LOURENÇO, Las culturas populares (73-104). Atrapasueños. Sevilla.

Javier ENCINA, Marta DOMÍNGUEZ, Ma Ángeles ÁVILA, Rosa ALCÓN eta Mariana SAIFE, M. (2007) *El Palomo*. Cuchará' y paso atrás' 16. Sevilla.

Manuela FERNÁNDEZ, Montse ROSA eta Javier ENCINA (2004) (koord.) Reparto. Presupuestos participativos y autogestión de la vida cotidiana en Las Cabezas de San Juan. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Jesús IBÁÑEZ (1985) *Las medidas de la sociedad*. REIS 29, 85-127.

----- (1989) *Cómo se realiza una investigación mediante grupos de discusión*. Francisco ALVIRA, Jesús IBÁÑEZ eta Manuel GARCÍA FERRANDO, El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación. Alianza Editorial, Madril.

----- (1997) *A contracorriente*. Ed. Fundamentos. Madril.

Donald M. LOWE (1986) *Historia de la percepción burguesa*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko.

Javier MALAGÓN (2003) *Comunicación y ciudadanía*. Tusta AGUILAR eta Araceli CABALLERO (koord.) Campos de juegos de la ciudadanía. Editorial Viejo Topo. Bartzelona.

Pedro MARTÍN (2005) *La mano y la herramienta*. Javier ENCINA eta beste (koord.) Cuando nos parece que la gente no participa. Ed. Atrapasueños. Sevilla.

Manfred MAX-NEEF (1994) Desarrollo a escala humana. Ed. Icaría. Barcelona.

Edgar MORIN (2001) Los siete saberes necesarios para la educación del futuro. Ed. Paidós. Barcelona.